## ARTZINIEGA

353

**Hiri barruan pertsonak turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoa (taxia) arautzen duen ordenantzaren behin betiko onarpena.**

Udalak 2008ko azaroaren 6ko ohiko bilkuran erabaki zuen hasierako onarpena ematea hiri barruan pertsonak turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoa (taxia) arautzen duen ordenantzari.

Zerga horiei buruzko espedienteak jendaurrean jarri (2008ko abenduaren 5eko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala, 140 zenbakia) dira eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartu da. Hona hemen ordenantza hori:

### HIRI BARRUAN PERTSONAK TURISMO AUTOMOBILETAN GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA (TAXIA) ARAUTZEN DUEN ARTZINIEGAKO UDALAREN ORDENANTZA

#### I. TITULUA
#### ARAU OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- ORDENANTZAREN XEDEA.

Ordenantza honen xedea Artziniegako Udalak emandako lizentziarekin hiri barruan pertsonak taximetroa duten turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoa -hemendik aurrera taxia- nola egin behar den arautzea da.

Ordenantza hau ondokoei aplikatuko zaie: taxi guztiei, hiri barruan pertsonak turismo automobiletan garraiatzeko udal lizentzia duten pertsonei (taxilariak), taxia gidatzen lan egiten duten pertsonei (Artziniegako Udalak emandako lizentziekin bat etorri behar dira) eta zerbitzu hau erabiltzen duten pertsonei.

Nolanahi ere, ordenantza honetan Artziniegako udalerriaren barruan ezarritako ibilbideak Aiarako Kuadrillari dagozkio, Taxi Zerbitzua Emateko Lurraldea baita.

2. ARTIKULUA.- DEFINIZIOAK.

Ordenantza honen ondorioetarako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) Taxi zerbitzua: bidaiariak garraiatzea gehienez bederatzi plaza dauzkaten ibilgailuetan, gidariarena barne, tarifa deritzon prezioa kobratuta.

b) Hiri barruko taxi zerbitzuak: Artziniegako udalerriaren barruko taxi zerbitzuak.

c) Herriz kanpoko taxi zerbitzua: b) letran adierazitakoak ez beste guztiak.

3. ARTIKULUA.- ZERBITZUAREN PRINTZIPIO GIDARIAK.

Hauek izango dira taxi zerbitzuaren jarduera burutzeko printzipioak:

a) Zerbitzuaren unibertsaltasuna, iriste erraztasuna eta jarraitutasuna.

b) Erabiltzaileek kalitateko zerbitzua izateko duten eskubidea eta lizentzien jabeek lan baldintza eta diru sarrera duinak izateko duten eskubidea.

c) Administrazioaren esku hartzea, zerbitzua emateko orduan ahalik eta kalitaterik hoberena lortze aldera interes publikoa bermatu beharrean oinarritua.

d) Udalaren eta lizentzien jabeen arteko lankidetza, zerbitzua emateko modua hobetze aldera. Izan ere, arreta berezia emango zaio sektore honetako elkarteekin lankidetzan berrikuntza teknologiko egokienak ezartzeari, taxi zerbitzuaren prestazioa eta segurtasuna hobetzeko asmoarekin.

## ARTZINIEGA

353

**Aprobación definitiva de la Ordenanza Municipal reguladora del Servicio de Transporte Público Urbano de Personas Viajeras en Automóviles de Turismo (TAXI).**

Este Ayuntamiento, en Sesión Ordinaria celebrada el día 6 de noviembre de 2008, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal reguladora del Servicio de Transporte Público Urbano de Personas Viajeras en Automóviles de Turismo (Taxi).

No habiéndose presentado reclamación alguna durante el periodo de exposición al público mediante anuncio insertado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava nº 140 de fecha 5 de diciembre de 2008, queda definitivamente aprobada, quedando redactada de la siguiente forma:

### ORDENANZA MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE ARTZINIEGA REGULADORA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE PÚBLICO URBANO DE PERSONAS VIAJERAS EN AUTOMÓVILES DE TURISMO (TAXI)

#### TÍTULO I
#### NORMAS GENERALES

ARTÍCULO 1.- OBJETO DE LA ORDENANZA

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de los servicios de transporte urbano de viajeros en automóviles de turismo -en adelante, taxi- provistos de contador taxímetro, cuya licencia haya sido expedida por el Ayuntamiento de Artziniega.

La presente Ordenanza será de aplicación a todos los taxis, a las personas titulares de licencia municipal de transporte urbano de personas viajeras en automóviles de turismo (taxistas), a sus personas conductoras que han de corresponderse con alguna de las licencias concedidas por el Ayuntamiento de Artziniega, así como a las personas usuarias de los mismos.

En todo caso, los trayectos indicados en la presente Ordenanza dentro del término municipal de Artziniega habrán de entenderse referidas a la Cuadrilla de Ayala/Aiarako Koadrila como Área Territorial de Prestación Conjunta del Servicio de Taxi.

ARTÍCULO 2.- DEFINICIONES.

A efectos de esta Ordenanza, se entiende por:

a) Servicios de taxi: el transporte de viajeros con vehículos de hasta nueve plazas de capacidad, incluida la persona que conduce, y que se retribuye mediante el pago de un precio, denominado tarifa.

b) Servicios urbanos de taxi: los servicios que discurren íntegramente por el término municipal de Artziniega.

c) Servicios interurbanos de taxi: los no comprendidos en la definición de la letra b).

ARTÍCULO 3.- PRINCIPIOS RECTORES DEL SERVICIO.

El ejercicio de la actividad del servicio de taxi se sujeta a los siguientes principios:

a) La universalidad, accesibilidad y continuidad del servicio

b) El derecho de las personas usuarias a disponer de un servicio de calidad, y el derecho de las personas titulares de una licencia a unas condiciones de trabajo y unos ingresos dignos

c) La intervención administrativa, fundamentada en la necesaria garantía del interés público para la consecución de un nivel óptimo de calidad en la prestación del servicio

d) La colaboración entre el Ayuntamiento y las personas titulares de licencia, para la mejora de las condiciones de prestación del servicio. Así, se prestará especial atención a la promoción, en colaboración con las Asociaciones del Sector, de la progresiva implantación de las innovaciones tecnológicas más indicadas, con el fin de mejorar las condiciones de prestación y seguridad de los servicios de taxi.

**II. TITULUA**
**LIZENTZIAK ETA BAIMENAK**

I. kapitulua
Izaera juridikoa

4. ARTIKULUA.- GARRAIO LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.

1.- Lizentzia ordenantza honen xede den hiri barruko garraio zerbitzua emateko gaitzen duen titulu juridikoa da.

2.- Udal lizentzia dutenek herriz kanpoko zerbitzua egiteko ezinbestekoa da Arabako Foru Aldundiak emandako garraio baimena edukitzea.

3.- Artziniegako Udalaren lizentzia eta herriz kanpoko zerbitzurako baimena dauzkaten titularrek (edo haien soldatapeko gidariek) Artziniegako udalerrian (edo Taxi Zerbitzua Emateko Lurraldean -honek Aiarako Kuadrilla hartzen du-) hasten edo amaitzen diren ibilbideak baino ezin izango dituzte egin. Batera zein bestera, ibilbideak ibilgailuko ibilbide liburuan jaso behar dira.

5. ARTIKULUA.- LIZENTZIA MOTAK.

1.- Taxi zerbitzuan aritzeko udal lizentziak "egokituak" izango dira. Lizentzia "egokituak" dira batez ere pertsona ezinduen garraiorako direnak.

2.- Lizentzia egokituek irisgarritasunaren alorrean indarrean dauden arau teknikoei jarraiki egokitutako ibilgailua eduki beharko dute atxikita zerbitzuari.

3.- Lizentzia egokituak xede honetarako sortu eta eman daitezke. Hala denean, egokitua izatea lizentziaren berezko ezaugarria izango da.

II. kapitulua
Lizentziak ematea eta erregistratzea

6. ARTIKULUA.- LIZENTZIEN KOPURUA.- EMATEKO PROZEDURA.

1.- Eman beharreko taxi zerbitzurako lizentzien kopurua Udalaren organo egokiak zehaztu ahal izango du toki araubideko arauekin bat etorriz, zerbitzuaren hobekuntza aintzat hartuta.

Nolanahi ere, ezin eman izango dira Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak ezarritako gehieneko kopurua baino gehiago.

2.- Udalak gehienez eman ditzakeen taxi zerbitzurako lizentzien kopuruaren barruan, haiek gehitzeko edo murrizteko sustatzen diren espedienteetan ondoko datuak hartu behar dira kontuan:

a) Zerbitzuaren egoera aldaketa egin aurretik (batez ere kalitatea eta hedadura).

b) Udalerriko hirigintza garapena eta jarduera ekonomikoa eta gizartekoa.

c) Ezintasunen bat duten herritarrei garraio zerbitzua eskuratzea, errazago integra daitezen eta mugitzeko aukera gehiago eduki ditzaten.

Honelako espedienteetan txostena eskatu behar zaio Arabako Lurralde Historikoko Taxi Batzordeari edo organo baliokideari, eta, gainera, entzunaldia eman behar zaie pertsona erabiltzaileen elkarte adierazgarrienei eta ordenantza honetan kontuan hartutako taxiaren sektoreko taldeei.

3.- Taxi zerbitzurako udal lizentziak Udalaren organo eskudunaren ebazpenaren bitartez emango dira. Hain zuzen ere, lehiaketa deituko da eta bertan zorrotz beteko dira lehia askearen eta publizitatearen printzipioak. Besteak beste, ondokoak baloratu ahal izango dira:

• Eskaintza ekonomikoa.
• Hizkuntzen ezagutza.
• Lizitatzaileek zerbitzuaren ezaugarri bereziez egiten dituzten proposamenak.

**TÍTULO II**
**DE LAS LICENCIAS Y AUTORIZACIONES**

Capítulo I
De su naturaleza jurídica

ARTÍCULO 4.- LICENCIAS Y AUTORIZACIÓN DE TRANSPORTE

1.- La licencia es el título jurídico que habilita a su titular para la prestación de los servicios urbanos a que se refiere esta Ordenanza.

2.- Únicamente podrán prestar servicios interurbanos aquellos titulares de licencia municipal que estén en posesión de la correspondiente autorización de transporte otorgada por la Excma Diputación Foral de Alava.

3.- La posesión de la licencia municipal de Artziniega así como la autorización para la realización de servicio interurbanos permitirán a su titular (o conductor asalariado) única y exclusivamente la realización de trayectos que comiencen en el término municipal de Artziniega (o su Área de Prestación Conjunta del Servicio que incluye la Cuadrilla de Ayala/Aiarako Koadrila) o bien que finalicen en el término municipal de Artziniega (o su Área de Prestación Conjunta del Servicio que incluye la Cuadrilla de Aiala/Aiarako Koadrila). En ambos supuestos, el itinerario realizado deberá hacerse constar en el Libro de Rutas del vehículo.

ARTÍCULO 5.- TIPOS DE LICENCIA

1.- Las licencias municipales del servicio de taxi tendrán la consideración de "adaptadas".Son licencias "adaptadas" aquellas que están preferentemente destinadas al servicio de personas con discapacidad.

2.- Las licencias adaptadas deberán tener adscrito al servicio, en todo caso, un vehículo adaptado según las normas técnicas vigentes de accesibilidad.

3.- Las licencias adaptadas podrán haber sido creadas y otorgadas con este objeto, considerando entonces su carácter de adaptadas como inherente a las mismas.

Capítulo II
De la concesión de las licencias y su Registro

ARTÍCULO 6.- DEL NÚMERO DE LICENCIAS.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN.

1.- La determinación del número de licencias efectivas del servicio de taxi a otorgar podrá hacerse por el órgano municipal correspondiente de acuerdo con la normativa de régimen local, en razón de la mejora del servicio a prestar.

En todo caso, el número máximo de licencias a otorgar queda limitado por el número máximo del contingente establecido por el Departamento de Transporte y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

2.- Cualquier expediente que se promueva con el objeto de aumentar o disminuir el número de licencias del servicio de taxi, dentro del número máximo a otorgar por el Municipio, deberá tomar en consideración los siguientes datos:

a) La situación del servicio (sobre todo, calidad y extensión) en la situación previa a la variación.

b) El desarrollo urbanístico y la actividad económica y social del municipio.

c) Facilitar el acceso al transporte de sectores de la población con algún tipo de discapacidad, facilitando su integración y movilidad.

En dichos expedientes se deberá solicitar informe a la Comisión del Taxi del Territorio Histórico de Álava u órgano equivalente, dándose, asimismo, audiencia a la/s asociaciones de personas usuarias más representativa/s, y a aquéllos colectivos del sector del taxi considerados en esta Ordenanza.

3.-Las licencias municipales del servicio de taxi se otorgarán mediante Resolución del Órgano Municipal competente, mediante concurso previo convocado al efecto y con estricto respeto a los principios de libre concurrencia y publicidad, en el que se podrán valorar, entre otros, los siguientes aspectos:

• La oferta económica.
• Conocimiento de idiomas.
• Propuestas de la persona licitante en cuanto a especiales características de prestación del servicio.

• Beste lizitatzaileen aldean zerbitzua hoben duten bestelako merezimenduak.

4.- Artikulu honetako 4. paragrafoan aipatutako lehiaketan parte hartzeko, eta lizentziak eskualdatu ahal izateko, interesdunek ondokoak bete behar dituzte:

a) Aiarako Kuadrillako udalerrietako batean erroldatuta egon izana bi urtez gutxienez.

b) Zerga betebeharrak egunean eduki behar dituzte.

c) Gidabaimen egokia eduki behar dute, trafikoaren eta bide segurtasunaren arloko organo eskudunak emana.

d) Ezin dute eduki lanbidean jardutea eragozten edo zailtzen duen eragozpen fisikorik ez psikikorik.

e) Indarreko araudian ezarritako baldintza eta betekizun bete behar dituzte, eta eskatzen diren agiri guztiak eduki.

III. Kapitulua

Lizentziaren ustiapena

7. ARTIKULUA.- LIZENTZIEN KOPURUA.

1.- Lizentzia bakoitzak titular bat bakarrik eduki behar du, gidari bat bakarrik esleituta aldi bakoitzean, eta ibilgailu bat bakarrik atxikita.

2.- Pertsona batek ezin du izan lizentzia bat baino gehiago.

3.- Behin lizentzia esleituta geralekuan egon behar da 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Ordutegi hori bete ahal izateko, esleipendunak ordutegia betetzeko egutegia aurkeztu beharko dio udalari.

8. ARTIKULUA.- LIZENTZIAREN USTIAPENA.

1.- Aparteko kasuetan, eta arlo egokiaren ustez nahiko arrazoi badago (alarguntasuna, titularraren ezintasuna, lanerako ezintasun iragankorra edo zerbitzua egitea eragozten gertatzezko bestelako inguruabarren bat; behar bezala frogatu behar ditu), soldatapeko gidaria kontrata daiteke lizentzia ustiatzeko. Soldatapeko gidariak Artziniegako Udalak emandako baimena eta agiria eduki behar ditu.

2.- Lizentzia baten titularra hiltzen bada, hura jaraunsten duen pertsonak lizentzia bere izenean emateko eskatu ahal izango du eta behin-behineko eran ustiatu ahal izango du, adingabea den artean edo beste sarrera iturri bat lortu arte, soldatapeko gidari bat kontratatuta, Udalak baimena eman ondoren. Inguruabar horiek desagertutakoan baimena baliogabetuko da. Udalak noiznahi eskatu ahal izango du frogatzeko.

Beste kasu guztietan jaraunsleak berak ustiatu behar du lizentzia, ordenantza honetan ezarritako baldintzei lotuta, edo lizentzia eskualdatzeko eskatu beharko du kausatzailea hiltzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen.

3.- Lizentzia adingabe batek jasotzen badu jaraunspenean, adin nagusitasunera heltzen denetik lau urteko epealdia edukiko du lizentzia bere kabuz ustiatzen hasteko, ordenantza honetan ezarritakoari lotuta, edo eskualdatzeko eskatzeko.

4.- Aparteko kasuetan, ordenantza honetan kontuan hartu ez diren egoera iragankorretan (jaraunspenen izapidetzea...), Udalak, alegatzen diren inguruabarrak aintza harturik, lizentzia jakin bat soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatzeko baimena eman ahal izango du behin-behineko eran. Hala gertatuz gero, baimena alegatzen diren inguruabarrak dirauten artean egongo da indarrean.

5.- Zerbitzua inolaz ere ezin egin izango da soldatapeko gidariaren bitartez titularra erretiratu ondoren.

6.- Urte batean zerbitzurik egiten ez bada hiru hilean baino aldi luzeagoan bidezko arrazoirik eman gabe, lizentzia iraungiko da bidezko espedientea izapidetu ondoren. Hala denean, Udalak beste bati adjudikatu ahal izango dio edo, bestela, amortizatu ahal izango du, berak nahi duena, bidezko arrazoiak dauden kasuetan izan ezik (arrazoiak Udal Administrazioak onartu behar ditu ebazpen bidez).

• Otros méritos que puedan suponer una mejor prestación del servicio por cada persona aspirante frente al resto.

4.- Para acceder al concurso indicado en el párrafo 4º del presente artículo así como para los supuestos de transmisibilidad de las licencias, los/as interesados/as deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) estar empadronados/as en alguno de los municipios de la Cuadrilla de Ayala con una antigüedad mínima de dos años

b) estar al corriente de sus obligaciones fiscales,

c) poseer permiso de conducción suficiente expedido por el órgano competente en materia de tráfico y seguridad vial,

d) no padecer impedimento físico o psíquico que imposibilite o dificulte el normal ejercicio de la profesión.

e) se exigirán todas las condiciones, documentación y requisitos establecidos en la normativa vigente.

Capítulo III

Explotación de la licencia.

ARTÍCULO 7.- NÚMERO DE LICENCIAS

1.- Cada licencia tendrá un solo titular, un solo conductor/a asignado/a en cada momento y tendrá adscrito un solo vehículo.

2.- Una misma persona no podrá ser, en ningún caso, titular de más de una licencia.

3.- Una vez adjudicada la licencia deberá permanecer en la parada, cumpliendo el horario de 10 a 13 horas y de 16 a 19.

Para dar cumplimiento a este horario las adjudicatarias deberán presentar en el Ayuntamiento un calendario con el horario a cumplir con cada una.

ARTÍCULO 8.- EXPLOTACIÓN DE LA LICENCIA.

1.- Excepcionalmente, y cuando a juicio del Área correspondiente, concurran motivos suficientemente acreditados (viudedad, invalidez del titular, incapacidad laboral transitoria u otras circunstancias sobrevenidas que impidan la prestación personal del servicio), la licencia podrá ser explotada mediante la contratación de un conductor asalariado, provisto de la correspondiente autorización y credencial de conductor expedidos por el Ayuntamiento de Artziniega.

2.- En el supuesto de fallecimiento de la persona titular de una licencia, la persona heredera del título habilitante deberá solicitar el otorgamiento de la licencia a su nombre, y tendrá derecho a su explotación provisional mediante la contratación de una persona conductora asalariada, previa autorización municipal, en tanto que dicha persona heredera sea menor de edad o no disponga de otra fuente de ingresos. La autorización quedará sin efecto cuando dichas circunstancias hubieran desaparecido, debiéndose acreditar de la forma que, en cualquier momento, les exija el Ayuntamiento.

En cualquier otro caso, el/la heredero/a deberá explotarla de forma personal, con las condiciones recogidas en la presente ordenanza, o bien solicitar la transmisión de la licencia en un plazo no superior a seis meses desde la fecha de fallecimiento del causante.

3.- En el caso de herencia de la licencia por un menor de edad, se dispondrá de un plazo de cuatro años desde el cumplimiento de su mayoría de edad para explotarla de forma personal, con las condiciones recogidas en la presente ordenanza, o bien solicitar su transmisión.

4.- Excepcionalmente, en situaciones transitorias no contempladas en esta Ordenanza (tramitación de herencias,...), el Ayuntamiento, a la vista de las circunstancias alegadas, podrá autorizar provisionalmente la explotación de una licencia mediante la contratación de una persona conductora asalariada, debiendo en ese caso limitarse temporalmente la autorización a la duración de las circunstancias alegadas.

5.- En ningún caso podrá prestarse el servicio mediante asalariado/a una vez el titular acceda a la jubilación.

6.- En el supuesto de que se dejara de prestar el servicio sin causa justificada durante más de tres meses en el plazo de un año, se producirá, previa la tramitación del correspondiente expediente, la caducidad de la licencia, pudiendo el Ayuntamiento proceder a su nueva adjudicación o a su amortización según estime oportuno, salvo supuestos debidamente motivados y expresamente reconocidos mediante resolución administrativa por la Administración Municipal.

Bidezko arrazoia da ibilgailuaren lanerako ezintasun iragankorra, lizentziaren titularra izan zein ez. Nolanahi ere, lizentziaren titularrak soldatapeko gidari baten bitartez egin behar du zerbitzua ezintasuna hasten denetik egutegiko 60 egun igaro ondoren, ordenantza honetan eta Udalaren ebazpenean ezarritako baldintzak beteta.

Soldatapeko gidaria lanerako ezinduta geratzen bada modu iragankorrean, haren ordez soldatapeko beste gidari bat kontratatu ahal izango da, aparteko kasu gisa eta aldi baterako soilik. Gidari berriak ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak bete behar ditu eta Artziniegako Udalaren baimena eskuratu behar du. Ordezpena lanerako ezintasun iragankorra hasten denetik egutegiko 60 egun pasatu baino lehen egin behar da.

Lizentziaren titularraren edo soldatapeko gidariaren lanerako ezintasun iragankorra amaitutakoan horren berri eman behar zaio Artziniegako Udalari.

9. ARTIKULUA.- SOLDATAPEKO GIDARIAK.

1.- Soldatapeko gidariek Artziniegako Udalak lizentzien titularrei lanbide gaitasunaz ezarritako baldintza berak bete behar dituzte. Gainera, ezin dira egon ezgaituta eta ezin dute eduki debekatuta garraio honetan jardutea ordenantza honetan eta Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legean eta hau garatu edo ordeztu duten arauetan ezarritakoaren arabera.

2.- Lizentzia bat ustiatzeko soldatapeko gidariak behar duen baimena eskuratzeko, titularrak lan kontratua aurkeztu behar du (bermatzen duen soldata finkoa zehaztuta, gidariak etekin ekonomikoetan daukan partaidetza gorabehera), bai eta proposatzen duen gidaria Gizarte Segurantzako nahitaezko araubideetan behar bezala afiliatuta dagoela frogatzen duen agiria ere.

3.- Lizentzia bakoitzak ezin du eduki atxikita soldatapeko gidari bat baino, Udalak legezko kasuetan eta arauetan ezarritako kasuetan baimena eman ezean.

4.- Soldatapeko gidariek ez dute edukiko inolako prerrogatibarik ez lehentasunik taxi lizentziak emateko prozeduretan.

9 BIS ARTIKULUA.- GIDARI AGIRIA.

1.- Taxi zerbitzua egiteko, gidariek (lizentziaren titularrek zein soldatapekoek ordenantza honetan ezarritako kasuetan) gidari agiria eduki behar dute. Agiri hau identifikazio txartela bezalakoa izango da.

Gidari agiriak Artziniegako Udalarenak dira; lizentzien titularrek eta soldatapeko gidariek gordailuan edukiko dituzte, eta titulartasuna edo gidari aritzeko baimena galduz gero, itzuli egin beharko dute.

Lizentzia baten titular ez diren taxi gidarien kasuan, Udalak lizentzia bati atxikita soldatapean aritzeko baimena emanez gero, gidari agiria eskatu behar diote. Atxikipena amaitutakoan agiria itzuli beharko dute.

2.- Taxi gidariek erraz ikusteko moduko leku batean jarri behar dute agiria ibilgailuan.

Agirian ondokoak agertu behar dira: gidariaren (titularra zein soldatapekoa) argazkia eta identifikazioa, indarraldia, atxikitako ibilgailua, lizentziaren zenbakia eta titularra. Horiez gainera inguruabar bereziak ere ager daitezke, esaterako ibilgailua egokitua dela, plaza kopurua edo agiria behin-behinekoa dela.

3.- Taxi gidariaren agiria kasu honetan iraungiko da: espedientea izapidetu ondoren, administrazio ebazpen baten bitartez urte batean taxi zerbitzua hiru hilabete baino aldi luzeagoan ez dela egin frogatzen bada, bidezko arrazoiak dauden kasuetan izan ezik (arrazoiak Udal Administrazioak onartu behar ditu ebazpen bidez). Agiria iraungitzeaz gainera baliteke gertatutako administrazio arau haustetzat jotzea ere, ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Se considera causa justificada la incapacidad laboral transitoria del conductor del vehículo, sea o no titular de la licencia. En todo caso, el titular de la licencia deberá prestar el servicio mediante un conductor asalariado transcurrido el plazo máximo de 60 días naturales desde el inicio de dicha incapacidad, previo cumplimiento de las condiciones exigidas por esta Ordenanza y resolución municipal.

En el supuesto de incapacidad laboral transitoria del conductor asalariado, se permitirá, excepcional y temporalmente, su sustitución por nuevo conductor asalariado que deberá cumplir la totalidad de las condiciones exigidas por esta Ordenanza, previa autorización del Ayuntamiento de Artziniega. La sustitución deberá hacerse en el plazo máximo de 60 días naturales desde el inicio de la incapacidad laboral transitoria del conductor asalariado.

Finalizada la incapacidad laboral transitoria del titular de la licencia o, en su caso, del conductor asalariado, se comunicará al Ayuntamiento de Artziniega.

ARTÍCULO 9.- CONDUCTORES ASALARIADOS.

1.- Los conductores/as asalariados/as reunirán idénticos requisitos de aptitud profesional que los exigidos por el Ayuntamiento de Artziniega para los titulares de licencias, y no deberán estar incursos en ninguna de las causas de incapacidad o prohibiciones indicados en la presente Ordenanza y en la Ley 2/2000 de 29 de junio de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo y normativa de desarrollo o que la sustituya.

2.- Para obtener la autorización de conductor/a asalariado/a respecto de una licencia, el/la titular de la misma deberá presentar contrato de trabajo con especificación del salario fijo garantizado, sin perjuicio de cualquier participación en los rendimientos económicos, y justificante de hallarse el conductor propuesta debidamente afiliado/a en los regímenes obligatorios de la Seguridad Social.

3- Ninguna licencia podrán tener adscrito más de un conductor/a asalariado/a, salvo autorización municipal y estrictamente en los casos legal o reglamentariamente expresamente previstos.

4.- Las personas conductoras asalariadas no tendrán ninguna prerrogativa o prelación especial en los procedimientos de otorgamiento de licencias de taxi.

ARTÍCULO 9 BIS.- CREDENCIAL DE LA PERSONA CONDUCTORA.

1.- Para la prestación del servicio de taxi, la persona conductora, (titular de la licencia o asalariado en los supuestos permitidos por la presente Ordenanza) deberá contar con la credencial de persona conductora que, además, será tarjeta de identificación.

La credencial de persona conductora es propiedad del Ayuntamiento de Artziniega y queda en depósito de los titulares de licencia o asalariados/as, debiendo devolverse al Ayuntamiento cuando pierdan dicha titularidad o autorización para ejercer como conductor/a asalariado/a.

En el supuesto de conductores de taxi que no sean titulares de una licencia, se deberá solicitar la correspondiente credencial al Ayuntamiento cuando éste hubiera autorizado como personas conductoras a asalariados/as adscritos/as a una determinada licencia. En todo caso, deberá devolverse dicha credencial cuando finalice la adscripción.

2.- La credencial como persona conductora de taxi deberá portarse en lugar visible del vehículo.

En la citada credencial aparecerá foto e identificación del conductor autorizado (titular o asalariado), periodo de validez de la misma, vehículo adscrito, así como número de licencia y titular de la misma. Además se incluirán las circunstancias específicas tales como vehículo adaptado y número de plazas o provisionalidad de su validez.

3.- La credencial de conductor/a de taxi caducará al acreditarse mediante resolución administrativa, previa tramitación de expediente, que en el plazo de un año no se ha llevado a cabo la prestación del servicio de taxi durante un periodo de tres meses, salvo supuestos debidamente motivados y expresamente reconocidos mediante resolución administrativa por la Administración Municipal y sin perjuicio de su calificación como infracción administrativa de acuerdo con la presente Ordenanza.

4.- Taxi gidariaren agiria lortzeko edo berritzeko ondokoak bete behar dira:

a) Gidaria pertsona fisikoa izan behar da.

b) Ezin da izan beste lizentzia baten titularra.

c) Aiarako Kuadrillako udalerrietako batean erroldatuta egon izana bi urtez gutxienez.

d) Zerga betebeharrak egunean eduki behar ditu.

e) Osakidetzaren ziurtagiri ofizial baten bitartez egiaztatu behar du ez daukala gaixotasun infekziosorik ez kutsakorrik, ez eta lanean jardutea eragozten edo zailtzen dion eragozpen fisiko ez psikikorik ere.

f) BTP motako gidabaimena eduki behar du, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emana.

5.- Gidari agiriak bost urtetarako balioko du. Aldi hori amaitu baino lehen berritu behar da, eta hori egiten denean gidariak ez ditu gainditu beharko gaitasun probak, Udalak besterik ezartzen ez badu ebazpen arrazoituaren bidez. Nolanahi ere, artikulu honetako 1. idatz zatian (in fine) eta 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.

Agiria ez berritzeak edo ez ikus-onesteak tituluaren ezeztapena ekarriko du. Kasu guztietan, lizentzia berritzeko ezinbestekoa izango da administrazio bidean irmo den ebazpenaren bitartez jarritako diru zehapenak ordaintzea.

IV. kapitulua
Lizentziak eskualdatzea

10. ARTIKULUA.- LIZENTZIAK ESKUALDATU AHAL IZATEA.

1.- Lizentziak eta baimenak ezin dira eskualdatu, ondoko kasuetan izan ezik:

a) Titularra hilez gero; honelakoetan hauetako batek eskuratuko du lizentzia: ezkontide alargunak, izatezko bikotekideak (bikotea behar bezala inskribatuta egon behar da) edo jaraunsle legitimoak (edo legitimoek).

b) Titularrak erretiroa hartuz gero.

c) Artikulu honetako a) idatz zatian azaldutako alargunak, izatezko bikotekideak edo jaraunsleak lizentzia jarduera bakar eta esklusibo gisa ustiatu ezin badu.

d) Gaixotasuna, istripua edo ezinbesteko beste arrazoiren bat dela eta titularra lanbiderako betiko ezindua geratzen bada. Honen ondorioetarako, Osakidetzak aurrean aipatutako inguruabarra frogatzeko emandako txostena aurkeztu behar du titularrak (horrez gainera bidezko deritzen agiri guztiak aurkez ditzake), eta Udalak azterketak agindu ahal izango ditu.

e) Lizentziaren titulartasunak hamar urte baino gehiago badauzka. Hala denean, toki erakundeak baimena eman ondoren eskualdatu ahal izango du, baina, ordenantza honetan finkatutako moduetan, ezin lortu izango du udalerri bereko beste lizentziarik hurrengo hamar urteetan.

2.- Artziniegako Udalak eskualdaketarako baimena eman behar du. Horretarako, lehenbizi eskabidea aurkeztu behar zaio eta eskuratzaileak ordenantza honetan lizentzia baten titular izateko ezarritako betekizun eta baldintza guztiak bete behar ditu.

Eskabidea aurkezten denetik hiru hilabeteko aldian berariazko jakinarazpenik jasotzen ez bada, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da administrazio isiltasunagatik. Hala ere, Udal Administrazioak ebazpena eman behar du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 43. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Lizentzia eskualdatzea baimendu ondoren, eta jakinarazpenetik hilabete igaro aurretik, titularrak eta hura bereganatu nahi duenak idazki bat aurkeztu beharko dute eskualdatzea benetan gauzatu dela jakinarazteko. Bertan titularrak lizentziari uko egin diola adierazi beharko da eta titular berriari eman dakiola eskatu. Honen datu pertsonalak eta helbidea adierazi behar dira. Azken idazki horrekin batera, taxi lizentziaren jabe izateko bete beharreko baldintzak betetzen

4.- Para la obtención o, en su caso, renovación de la credencial como persona conductora de taxi se deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Ser persona física

b) No ser titular de otra licencia

c) Estar empadronado en alguno de los municipios de la Cuadrilla de Ayala con una antigüedad mínima de dos años.

d) Estar al corriente de sus obligaciones fiscales

e) Acreditar con la presentación de un certificado médico oficial del Servicio Público de Salud que no se padece enfermedad infeccioso-contagiosa o impedimento físico o psíquico que imposibilite o dificulte el normal ejercicio de la profesión

f) Poseer el correspondiente permito de conducción BTP, expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

5.- La credencial de persona conductora tendrá una validez de cinco años, debiendo ser renovado antes de cumplirse el citado plazo, quedando eximidas para ello de la obligación de superar la pruebas de aptitud, salvo resolución motivada municipal, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1º in fine y apartado 3º del presente artículo.

La falta de renovación o visado de la credencial dará lugar a la revocación de los títulos habilitantes. En todo caso, el pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa será requisito necesario para la realización de la citada renovación.

Capítulo IV
De la transmisión de las licencias.

ARTÍCULO 10.- TRANSMISIBILIDAD DE LAS LICENCIAS.

1.- Las licencias y autorizaciones son intransmisibles, salvo en los siguientes supuestos:

a) Por fallecimiento de su titular, a favor de su cónyuge viudo/a, pareja de hecho debidamente inscrita o herederos/as legítimos/as.

b) En caso de jubilación.

c) Cuando el cónyuge viudo/a, pareja de hecho o los herederos/as a los que se refiere el apartado a) no puedan explotar la licencia como actividad única y exclusiva.

d) Cuando se imposibilite de manera permanente para el ejercicio profesional al o la titular, por motivo de enfermedad, accidente u otros que puedan calificarse de fuerza mayor. A tal efecto, el/la titular, sin perjuicio de cualquier otra documentación que estime pertinente, deberá presentar informe emitido por el Servicio Público de Salud que acredite dicha circunstancia, sin perjuicio de exámenes adicionales instados desde el propio Ayuntamiento

e) Cuando la titularidad de la licencia tenga antigüedad superior a diez años. Se podrá llevar a cabo la transmisión, previa autorización de la entidad local, no pudiendo obtener nueva licencia, dentro del mismo municipio, en el plazo de diez años por ninguna de las formas establecidas en esta Ordenanza.

2.- La transmisión deberá ser autorizada por el Ayuntamiento de Artziniega, previa petición cursada a tal efecto, y siempre que el nuevo adquirente cumpla la totalidad de requisitos y condiciones establecidos en la presente Ordenanza para ser titular de la misma.

Transcurrido el plazo de tres meses desde la solicitud sin notificarse la resolución expresa, se podrá deducir desestimada por silencio administrativo, sin perjuicio de la resolución que la Administración Municipal debe dictar en cumplimiento de lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992 del 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y procedimiento Administrativo Común.

Una vez autorizada, y antes de transcurrir un mes desde su notificación, la persona titular presentará un escrito, junto al pretendiente titular, en el que ambos comunicarán la efectividad de la transmisión, comunicando, en el mismo, la renuncia de la persona titular a la licencia y solicitando el otorgamiento a la nueva persona titular, del cual se facilitarán su datos personales y domicilio de notificación. Junto a este último escrito, el candidato a la nueva licencia deberá

dituela egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko ditu lizentzia berria eskuratu nahi duenak. Idazkia adierazitako epealdian aurkezten ez bada, eskualdaketarako baimena baliogabetuko da.

Bai eskualdaketarako baimenaren eskaera eta lizentzia titular berriari emateko eskaera izapide bakar batean egin behar dira, prozedura azkartzeko. Kasu guztietan idatz zati honetako 2. paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da.

3.- Lizentziak eta baimenak ezin eskualdatu izango dira Udala eta Foru Aldundiak, hurrenez hurren, haiek azkentzeko edo aldi batez baliogabetzeko prozedura izapidetzen ari bada.

4.- Eskualdatzen den lizentziari atxikitako ibilgailua lehengo bera izan daiteke, baldin eta lizentzia eskuratzen duenak harekin batera ibilgailua ere eskuratu badu edo, ibilgailua titular berriak jarritakoa izanik, ibilgailuak ordezteko baldintzak betetzen baditu. Lizentzia garraio egokiturako bada, eskualdatzeak ezingo du berekin ekarri, inolaz ere, taxi egokituen kopurua murriztea.

5.- Nolanahi ere, sektoreko legerian sailkatutako arau hausteak direla eta administrazio bidean dagoeneko irmo diren ebazpenen bitartez jarritako diruzko zehapenak –dena delako lizentziaren titularrari jarriak– ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da Udalak lizentziak eskualdatzeko baimena emateko.

6.- Ezingo dira lizentziak eskualdatu baldin eta aldez aurretik Udalak jakiten badu ofizialki epaile edo administrazio organoren batek horiek bahitzeari ekin diola.

V. kapitulua
Lizentziak azkentzea

11. ARTIKULUA.- LIZENTZIAK AZKENTZEA ETA EZEZTATZEA.

1.- Lizentzia kasu hauetan azkenduko da: titularrak uko eginez gero edo Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legean eta hau garatu duen araudian ezarritakoaren arabera baliogabetu edo iraungiz gero.

2.- Araudi horretan ezarritako kasuetan ez ezik lizentziak ondokoetan ere azkenduko dira, ezeztatu egingo baitira:

a) Lizentziaren funtsezko baldintzak betetzen ez direnean.

b) Behin eta berriz arau hauste oso larriak egiten direnean edo ezarritako zehapena betetzen ez denean. Ondorio hauetarako, hauxe da arau hausteak behin eta berriz egitea: hamabi hilabeteko aldian ordenantza honetan ebazpen irmoaren bitartez zehapena eragin duten bi arau hauste oso larri egitea.

c) Urtebetean tituluak ikus-onesten ez direnean. Epealdi hau ikusonespena eskatzeko epealdiarekin batera hasiko da zenbatzen, kasu honetan izan ezik: eskabidea ez aurkeztu izana titularrari ezin egotzi bazaio.

d) Egokiera arrazoiek hala eskatzen dutenean. Honelako kasuetan lizentziaren titularrak Artziniegako Udalak finkatutako kalte-ordaina jasoko du –merkatu azterketak aintzat hartuko dira horretarako, eta sektoreko elkarte nagusiei parte hartzeko aukera emango–.

**III. TITULUA**
**IBILGAILUAK**

I. kapitulua
Arau orokorrak

12. ARTIKULUA.- LIZENTZIARI ATXIKITAKO IBILGAILUA.

1.- Titularrek ibilgailu bat atxiki behar diote lizentziari; Udalak baimena eman behar du ibilgailua zerbitzuan erabiltzeko.

Ibilgailu hauek ordenantza honen xede diren zerbitzuetarako erabili behar dira bertan ezarritakoari lotuta.

aportar la documentación necesaria para acreditar el cumplimiento de las condiciones necesarias para ser titular de licencia de taxi. En caso de no presentar el citado escrito en el plazo señalado, la autorización de transmisión caducará.

Tanto la solicitud para obtener la autorización de transmisión como la dirigida al otorgamiento de nuevo titular puede ser instado en un único trámite por economía procesal, siendo de aplicación, en todo caso, el plazo establecido en el párrafo 2º del presente apartado.

3.- No podrán ser objeto de transmisión las licencias y autorizaciones cuando el Ayuntamiento y la Diputación Foral, respectivamente, estén tramitando procedimiento de extinción o suspensión temporal de las mismas.

4.- El vehículo a que se refiera la licencia transmitida podrá ser el mismo al que anteriormente estuviera referida, cuando el/la adquirente de ésta hubiera, a su vez, adquirido la disposición sobre tal vehículo o bien ser otro distinto aportado por el nuevo/a titular, siempre que se cumplan los requisitos para la sustitución de vehículos. Cuando se trate de licencia adaptada con carácter inherente, su transmisión, en ningún momento, podrá suponer la disminución de la flota de taxis adaptados.

5.- En todo caso, el pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa por alguna de las infracciones tipificadas en la legislación del sector, será requisito necesario para que el Ayuntamiento autorice la transmisión de las licencias en relación con las cuales hayan cometido sus titulares dichas infracciones.

6.- No se podrá transmitir las licencias cuando el Ayuntamiento tenga conocimiento oficial de que se ha procedido al embargo de aquéllas por órgano judicial o administrativo.

Capítulo V
De la extinción de las licencias.

ARTÍCULO 11.- EXTINCIÓN Y REVOCACIÓN DE LAS LICENCIAS.

1.- La licencia se extingue por la renuncia de su titular, anulación y caducidad de acuerdo con el régimen establecido en la Ley 2/2000 del 29 de junio de Transporte Público Urbano e Interurbano de viajeros en Automóviles de Turismo y normativa de desarrollo.

2.- Además de lo establecido en dicha normativa se extingue, por su revocación, cuando:

a) Se incumplieren las condiciones esenciales de la licencia.

b) Por la comisión reiterada de infracciones muy graves o con quebranto de la sanción impuesta. A estos efectos, se entiende que existe reiteración cuando en los doce meses anteriores a su comisión, el responsable de la misma haya sido objeto de sanción mediante resolución firme por infracción tipificada como muy grave.

